

Espermizidak eta gernuko infekzioa

Espermizidak erabiltzaileak infekzio batzuk izateko arriskua handiagoa dela diote duela gutxi 1.200 emakume gazterengan ikerketa egin duten zientzialariek. Sexu harremanetan gizonezkoek preserbatiboekin batera monoxinol 9 espermizida erabili badute, emakumeengan *Escherichia coli*-ren bidezko zistitis akutua izateko arriskua hiru aldiz handiagoa da.

Sexu bidez transmititzen diren gaitzen prebentzioan (HIESaren prebentzioan adibidez) antisorgailu horiek ugari erabiltzen direnez gero, kontuan hartzekoa da eragiten duten infekzio-arriskua ere.

Diabetea sendatzeko arraina

Tropikoko ur gezatako arrain-mota bat diabetikoentzat emaille izan daiteke etorkizunean. Kanadako zientzialari batzuk tilapia izeneko arraina genetikoki manipulatu nahi dute, ondoren zelulak gaixoen pankreasean transplantatzeko. Urteetan zehar diabetea sendatzeko formula bilatzen dihardute



Tropikoko ur gezatan bizi den tilapia izeneko arraina genetikoki manipulatu nahi dute, ondoren zelulak diabetikoaren pankreasean transplantatzeko.

zientzialariek. Diabetikoek gaixo duten Langerhans-en irla nola transplantatu izan da erroka nagusia; orain arte, transplanteak egitean gaixoen droga immunosupresoreak hartu behar izaten zituzten, baina droga hauek beste gaixotasunak sortuz ditzakete (infekzioak, minbizia...).

Arazoa konpontzeko zientzialariek animaliak emaille bihurtzea pentsatu dute. Emailerik onena, teoriarik behintzat, txerria da, baina transplante bakar bat egiteko txerri asko behar dira. 10.000 diabetiko sendatzeko urteko milioi bat txerri behar dira eta animalia hauek denbora luze egoera berezietan zaindu behar dira. Honek guztiak kostuak izugarri igozten ditu.

Kanadako zientzialari batzuk tilapia arrainarekin egin dute proba. Arrain honek bi pankreas ditu eta bietako batean zelulak isola daitezke. Era-

gozpen bat aurkitu dute hala ere: arrainaren insulina eta gizakiarenak 17 aminoazido desberdin dituzte (txerriarenak, gizakiarenarekin alderatuz, bat baino ez du desberdina). Hau konpontzeko zientzialariek giza insulina txertatu dute arrainaren arrazuetan.

Jurasikoko antibiotikoa

Orain dela 130 milioi urteko anabarrereko mikroorganismoetatik aterako antibiotiko bat medikuntzarako interesgarria dela ikusi dute. Izan ere, farmaziatarako ohizko antibiotikoen erresistentzia duten estafilokokoen kontra eraginkorra da. Ikusi beharra dago organismoarentzat toxikoa den eta behar adina kantitate ateratzerik dagoen.

Telefono higikorrek amets gutxiago


Zientzialari aleman batzuek egin duten azterketaren arabera, telefono higikorra ondoan duela lo dagoenak denbora gutxiagoan amets egiten du. Fenomeno hori, diotenez, aparatuek inguruan sortzen duen eremu elektromagnetikoa dela eta gertatzen da.

Futbolaren arriskuak

Umeak futbolean gehiegi ibiltzea ez da komeni. Astean hamar ordu baino gehiago futbolean aritzen direnek izan ere, askotan barikozelea izaten dute, hau da, kordio espermatikoko

Mediku italiar batzuk diotenez, umeak ez du futboleak gehiegi ibili behar. Ondorio kaltegarriak sortze omen ditu.





benetako barize-dilatazioa. Gainera ezkerreko barrabila eskuintekoa baino % 10 txikiagoa izaten dute.

Ondorio hauetara heldu diren mediku italiarrek diotenez, futbola ugaldaren aurkakoa izan daiteke.

Fugu arraina eta Alzheimerra

Fugu izeneko arraina, oso estimatua da Japoniako jate-teeetan, baina pertsona hil egin dezake gaizki prestatuta zerbitzatzen bada. Gaur egun ordea, farmaziarako ikerketa-laborategietan ere erabiltzen dute. Gizakiaren genomaren antzekoa du alderdi batzuetan eta Britainia Handiko Wel-

come etxea ari da ikerituz Alzheimerren gaitzari buruzko lanetan aurrerapenak egin daitezkeelakoan.

Pipermina ultzerarentzat ez da kaltegarria

Ultzera dutenei kalterik ez die egiten piperminak. Gainera piperminak edozein motatako min eta inflamazioak baretzeko onak dira. Kapsizina izeneko substantzia dute eta honek P substantzia deitutakoaren produkzioa bultzatzen du. P substantziaren eginkizuna minaren seinaleak nerbio-sistema guztira banatzea da. Kapsizinak zelulek duten P erreserba agortuaz egiten du eta nerbio-sistemari senti-



Piperminak edozein motatako min eta inflamazioak baretzeko onak dira.

kortasuna galarazten dio. Kapsizina artrosiaren eta orbainetako oinazeen kontra erabiltzen dira.

Gosea kontrolatzeko

Frantziako INSERM erakundeko zientzialariek kolezistozineina degradatzen duen entzima identifikatu dute, eta kolezistozineina da, hain zuzen ere, apetitua kontrolatzen duen molekula. Jaten ari den bitartean neuronek jariatzen duten entzima hau bolu-miaren kontrako tratamendu terapeutikoan funtsezkoa izan daiteke. Dena den, entzima injektatu ondoren peptidasa izeneko beste entzima batzuek desaktibatuz egiten dituzte. Jean-Charles Schwartz irakaslearen eta bere taldearen ahalegina orain tripeptidil peptidasa II desaktibazio horren eragilea dela identifikatzea da. Entzima hori inhibitzeko molekula (butabindidoa) sintetizatu dute. Arratoiei ahotik hartuarazi diete molekula hori eta lortutako emaitzak itxaropentsuak dira.


Emakumeen oinazea

Emakumeek gizonezkoek baino gehiago sentitzen dute mina. Ondorio horretara heldu da Kaliforniako San Frantziskoko Unibertsitateko John Levine medikua, morfina familiako analgesiko berri bat aztertuta. Lankide batek iradoki



Emakumeek gizonezkoek baino gehiago sentitzen dute mina. Ondorio horretara heldu da Kaliforniako San Frantziskoko Unibertsitateko John Levine medikua.

zinez, emaitzetan eragina izan zezakeen gaixotaldeko gehienak emakumeak izateak. Levine asko harritu zen, baina lotura garbia aurkitu du pazienteen sexuaren eta oinazearekiko duten erreakzioaren artean. Emakumeek oinaze handiagoa sentitzen dute, baina analgesikoek mina errazago eta denbora gehiagorako kentzen die. Diferentzia horren arrazoi fisiologikoa zein den ez dakite oraindik.



Fugu izeneko arraina oso estimatua da Japoniako jate-teeetan. Gaur egun ordea, ez da horretara bakarrik mugatzen, farmaziarako ikerketa-laborategietan ere erabiltzen dute.